

Elvira Madrid Romero

Tapachula, Txiapas

"Brigada Callejera"
elkarteko zuzendaria.



Antolaketa oso garrantzitsua da, ezinbestekoa nik uste. Bizitza zeharo aldatu dezake borroka, baldintza hobeen alde aritzea eta horrek benetan funtzionatzen duela konturatzea. Une horretan “jo ta ke, gehiago ere lortzeko gai gara!” oihukatzen gogoak pizten zaizkizu Zureak diren eskubideak ezagutzea, aldarrikatzea eta gainontzeko kideak ere laguntzea... horrek pertsona gisa asko ahalduntzen zaitu.

Guzti horrek sendotzen gaitu, entzuten eta hausnartzen ikastea. Sexu-Langileen Sare Mexikarraren kasuan, urtero topagune bat egiten dugu. Orokorrean, topaketa hauek, arazo gehien dituzten eremuetan izan daitezen saiateren gara, asko laguntze baitu beste pertsona batzuen istorioak entzun eta ezagutzea. Izan ere, oraindik antolaketa prozesu hauetan hasten ari direnak, urteak eta urteak daramatzatenak entzutean, denek erantzun berbera dute: “guau! nik ere hala hitz egiteko gaitasuna izan nahi dut; pertsona hori ezagutu nahi dut; bere bezala lanean aritzeko irrikan nago”. Horrela, lan eta konpromiso horiindartu eta sendotuz doa apurka-apurka.

Lehia honetan tinko aritzeko eta, aldi berean, ama eta aitaren papera egiteko emakume askok duten gaitasun eta indarra asko harritzen nau, ia denak ama ezkongabeak diren heinean bereziki. Hau ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Nola hazi diren ikustean, lortu dugunaz konturatzen eta harrotzen naiz. Irakurtzen ezta idazten ez zekiten emakume asko



zeuden, eta borrokatze prozesu honetan ikasteko aukera izan dute. Beste batzuek, ordea, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lan-prestakuntza edota unibertsitate ikasketak ere amaitu dituzte, eta borrokan dihardute oraindik. Nik beti esaten diet inoiz ez dezatela historia ahaztu, ezta duten jatorriaz lotsatu ere. Justu kontrakoa, harrotasun osoz “ni naiz, ni nintzen eta ni izaten jarraituko dut!” aldarrikatzea.

Aukera izugarria da ere ezkertiar, apal eta, askotan, erabat ikusezinak diren mugimendu sozialekin espazioak partekatzea, landa eremuko emakumeekin esate baterako. Klinikariek gabeko eremuetan burutu izan diren osasun kanpainak dira adibide garbia. Diskriminazio handia sufritu izan dugu osasun zerbitzuen partetik, haiek osasuna merkantzia gisa antzematen baitute, bizia salbatzeko nahitaezko zerbitzu bezala hartu beharrean. Kideek osasuna euren eskuz hartu dute, beraz. Orain, haien buruak sendatzen ikasi duten osasun sustatzaileak bilakatu dira. “Nire gorputza da, maite dut eta, ondorioz, zainduko dut”, autozainketaren beharraz kontziente dira orain. Kondoia erabiltzea, Papanicolaou frogia egitea edota aldizkako azterketak egitea ez zaie ahazten jada. Eta ez haiek bakarrik, orain seme-alabekin, anai-arrebeekin eta inguruko jendearekin ere egiten dituzte. Garrantzitsua da guk geuk GIB proba bat egiteko gai garela ohartzea eta ikastea, ez dugula erizain edota mediku baten beharrik horretarako. Lan honek, gure kabuz aurrerapenak lortzeko ere kapaz garela antzematen laguntzen du. Kondoia marka propio bat ere sortu dugu, autofinantzaketa iturri bilakatu dena. Mexiko Hirian klinika bat eraikitzea ere lortu dugu, La Merced auzoan konkretuki, Latinoamerikako sexu-langile gehien biltzen dituen gunean hain zuzen. Neskak, buruak gora gerturatzen dira bertara egokitutako aldizkako azterketak egitera. Ez dugu inolako diru etekinik lortzen lan honekin, gure onuste maitasun osoarekin egiten dugu. Soilik haiek bertara joateko aukera izatea, eta gainera zerbitzua bera erabiltzea, zeharo harrotzen gaitu denei. Badira 30 urte baino gehiago sexu-lanetan daramatzaten lagunak eta orain osasun eragile lanean ari dira. Askok urteak daramatzate ikastaroak egiten eta behin eta berriz errepikatzen dute: “ni ez naiz inoiz damutuko egindakoaz eta, horri esker, osasuntsu nago gaur egun; bizirik nago eta ikasitakoa nire lankideekin partekatzeko prest nago”. Hori da, nire ustez, lankide gisa dugun aberastasunik handiena.

Hau guztia hasi genuenean, orain 30 urte, jakin bagenekien honek kostu bat ere izango zuela. Eraiketak, jipoiak, bahiketak, desagerpenak, mehatxuak eta abar luzea ziren ordaindu beharreko zerga hori. Baina, nire ustez, borroka guzti horrek biltzera behartu gintuen eta, orain, indartsuagoak gara talde gisa. Adibidez, gutariko norbait zuzengabekeria baten ondorioz espetxeratzean, denok lana bertan behera utzi egiten dugu atoan, lankide



horrek askatasuna lortu arte. Gauza bera hilketen kasuan, desagerpenekin... Ikaragarria da pertsona baten inguruko ezer ez jakitea egun batetik bestera, beldurgarria guztiz. Mexiko herrialde oso bortitza da gaur egun, horregatik guk geuk zaintzen ikasi behar izan dugu eta bata bestearen burua babestera ere. Autodefentsa tailerrak sustatu ditugu eta baita segurtasun protokolo propioak sortu ere. Agian horrek bizitza beste modu batean antzemateko aukera ere eskaini izan digu, maitasun osoz betea. Nire ustez, une hain latzak igaro dituzunean eta hainbat eta hainbat lagunen erailketak lehen pertsonan ikusi dituzunean, maite dituzun pertsonak galdu dituzunean, borrokan aritu eta oraindik ere bertan tinko dihardutenak... horrek sendotu egiten zaitu bai ala bai, nahitaez.

Ezagutu nituenean, lankide askok ahoa zabaltzearen beldur ziren. Gaur egun, ordea, haiek berak dira salatzeke, borrokatzeke eta antolatzeke adorea batu dutenak, ahotsak ozen altxatzeko azken finean. Zeharo harritzen nau lortu dugun guztia, egia esan. Inork ez digu ezer oparitu. Askok diskriminazio bortitza jasaten duten arren, emakumezkoen salerosketaren biktimak direla leporatzen zaizkie. Lan sexuala eta trataren arteko bereizketa hori ez egiteak, lan baldintzak hobetzearen alde ezer gutxi egiten du. Baldintzak eraldatzearen inguruan hitz egiten da askotan, baina ez da kontuan hartzen indargabetu beharko genukeena sistema kapitalista bera dela, bera baita errudun nagusi hain zuzen, bizitzarik gabe utzi eta etengabe esplotatzen gaituena. Etengabe, gau eta egun, aritu behar gara buru belarri lanean bizirauteko oinarri-oinarrizkoena lortu ahal izateko. Denbora gehiegi ematen dugu horretan eta ez dugu hausnartzeko inolako denborarik ere. Urte guzti hauetan, hori gero eta gehiago baloratzen ikasi dugu: norbanakoarentzat denbora tarte bat izatea, gure artean partekatzeke eta borroka honetan hasten ari diren kideak behar bezala hezitzeko, haien ibilbidea zerotik has ez dezaten. Historia oso bat dugu gure atzean izan ere.

Bizitako hilketa saiakeraz geroztik, argi geratu zitzaigun eginiko lan dena dokumentatu behar genuela, ahaztu ez zedin. Brasil eta Italiako lagunek gure lana erabiltzen hasi dira orain, harro sentitzeko modukoa da hori. Japoniatik argitaratutako emakumeentzako kondoiaren inguruko liburu baten itzulpena ere eskatu digute. Borrokan beran ari diren beste toki batzuetako lankideekin esperientzia hauek partekatzeke aukera izatea, oso garrantzitsua da guretzat eta asko indarberritzen gaitu. Guk, adibidez, Brasilen emakumeek erabiltzen zuten txilibituaren ideia hartu genuen eta, ondoren, bertoko gobernuak ere abian jarri zuen hemen, defentsarako erreminta gisa. Holako hainbat eta hainbat esperientzia partekatu ditugu eta, esan bezala, ezagutza horiek gure lana hobetu eta indartzen asko laguntzen dute. Zatikatu eta oztopatu baino ez duten egiten muga horiek apurtzeko unea heldu da. Dugun adore guzti hori batzeko momentua da, amorrua indartu gaitzake baita, eta ozen eta altu “aski da!” oihukatzeke. Gustuko ez dugun guztia aldatzeko gai gara.




Kalean borrokatzen hasi ginean, nolabaiteko jabe edo agintari baten esku zegoen beti, polizi edota amabitxi edo aitabitxi bat izan zitekeena, adibidez. Kalea erabat berea sentitzen zuen. Baina, hemen jaiotako borrokalari iraultzaile batek zioen bezala: “lurra, lantzen duenarena izango da beti”. Emiliano Zapata zen hura. Guk, esamolde historiko hori eraldatu dugu eta, orain, “kale kantoia bertan lan egiten duenarena” dela diogu. Barneratu egin dugu aldarrikapen hori eta errespetu dadin borrokatzen dugu egunero. Urtero, maiatzaren lehen, nazioarteko lanaren eguna ospatzen dugu, eta harro egin ere gainera. Gustatu ala ez, bakoitzak ahal duen bezala bizirauten saiatu behar da. Horregatik diogu izkina bertan lan egiten duenarena dela, eta inork ezin duela bereganatu. Esparru hau da gure borroka gunea, gure lurra alegia, eta horren defentsan arituko gara jo eta su, lurraren defendatzaileak aritzen diren antzera. Indigenak euren lurra defendatzen dute, landa gunek alegia; langileak fabrikak; iparraldeko lagunak laka lana ongi ordaindua izatea defendatzen dute... Bakoitzak bere borroka esparrua du bai, baina guztiok olatu beraren parte gara.

Azken urteotan, emakume guztien adonearen ernatze moduko bat eman dela uste dut. Gehien desagertzen garenak gara, gehien erailtzen gaituztenak, bortxaketen biktima nagusiak... eta, tamalez, etxean bertan hasi egiten da indarkeria hori askotan. Bizi izan zituzten egoera gogorren ondorioz, ihes egin behar izan zuten lankide askok. Gobernuak berak, narkoen aurka bideratutako kanpainen ondorioz eta sortutako idokitzeak direla eta, arazo ugari ere sortzen ditu denontzat.

Sexu-langileon borroka aurrera jarraitzen du. Lan sexuala, behin betiko, ogibide gisa aintzat hartzea nahi dugu, Mexikoko Hirian lortu genuen bezala. Oso egun gogorrak izan ziren haiek, errepresio handikoak, lagun asko espetxeratu zituzten, baita hil ere beste asko. Ondorioz, lan espazio asko itxi egin zituzten. Baina lan sexuala ez da inoiz desagertuko, kapitalismoak berak eragiten duelako, jende horrek guztiak dira esplotatzen gaituztenak izan ere. Hor arituko gara gau eta egun, tinko jarraituko dugu borrokan.

Emakumeok pasibo izateari utziko diogun mundu batekin egiten dut nik amets. Norberak sentitzen duena askatasun osoz aldarrikatzeko gai izango garen mundu bat, pentsatzen duguna plazaratzeko, eta, gainontzekoei gustatzen ez bazaie ere, nahi duguna egiteko libre izateko ere. Inork ez digu esan behar noiz irten, nola jantzi edo norekin ezkondu. Norbanakoak, dagoen lekuan egonda, defendatu behar du bere lurraldea. Bizitza berarekin ere behar izanez gero, hobe baita zutik hiltzea, ahuspeztuta bizitzea baino. Erail egiten gaituzte. Beraz, egin dezagun nahi duguna, nahi bezala eta nahi dugunarekin. *"Kantoia lan egiten duenarena da"*.



Alejandra, 34 urte.

Tuxtla Gutierrez hiritik eratorritako sexu langilea.

Gaixo sentitzen garenean, edota kondoiak edo diagnostiko probak behar ditugunean, beti elkartera gerturatzen gara lehendabizi. Bertan GIB, sifilis, haurdunaldi eta Papanicolaou frogak egiten dituzte. Hitzaldi eta formakuntza ikastaroak ere ematen dituzte, sifilis, gonorrrea edota GIBaren kontra nola zaindu informatzeko. Nik, adibidez, ez nuen inoiz entzun ere egin sifilis delako horren inguruan. Kondoi eta froga hauek, mediku partikular batera joanda, oso garestiak dira guretzat. Papanicolaou froga, esaterako, 200-300 peso (8-12€) inguru balio izaten du eta, gainera, gailua zuk zeuk erosi behar duzu. Elkartean guzti hau doakoa da zorionez.

Hemen, Tapachulan, sexu langile gisa aritzen naiz baina Tuxtlan, nire herrian alegia, ez dut lan hau egiten, bertan nire familia eta seme-alabak daude izan ere. Orain bost urte heldu nintzen hona, Tuxtlako mutil-lagun batekin hain zuzen. Bera banana fabrika batean lanean hasi zen baina ez zidan zentimorik ere ematen eta arazoak sortzen hasi ziren. Garai hartan Vivo Mexico-n bizi nintzen eta Tapachulako hirigunea ez nuen batere ezagutzen, beldurra ematen zidan izan ere. Mutilaren arrebari esan nion bertara nindoala lan eske bizirauteko. Malekoi aldean hasi nintzen lanean hasiera batean, sukalde batean harrikoa eginez, 100 pesoko eguneko soldataren truke. Goizeko 8etan hasi eta arratsaldeko 5ak arte, hara eta hona enkarguak eginez. Lan benetan ona zen hura ordaindutakoaren truke, baina eskuak zeharo hondatzen hasi zitzaizkidan jada eta azkenean lana utzi behar izan nuen. “Ez esazu lanik egin alabatxo” esaten zidan txikitatik aita eta, beraz, ez nuen inoiz egin. Horregatik nituen eskuak hain kaltetuak.

Egun batean, Tapachulako hiriguneko parke batean jesarrita nengoela, gizon bat gerturatu eta honakoa bota zidan bat-batean: “Zenbat balio duzu?”. “Zer?” izan zen nire ezusteko erantzuna, eta susmo txarrez begira geratu nintzen une batez. Orduan ulertu eta segituan ihes egin nuen, ahalik eta bizkorren. Hala ere, esandako grabatuta geratu zitzaidan betirako. Egun batzuk geroago, parke berara itzuli nintzen eta, bertan nengoela buruari bueltak ematen berriro ere, emakume altu eta sendo bat hurbildu eta esan zidan: “Hi neskatxa, aurrekoan ere hemen jesarrita ikusi zintudan, lan hauetan aritu nahi?” “ez -erantzun nion hasiera batean-, inoiz ez dut egin eta!”. Baina berak nabarmendu zidan: “Ez da lan batere ona, hori argi dago, baina nahi izanez gero hemen dirua lortzeko aukera hona duzu. Nik seme-alabengatik egiten dut batez ere, haiek jan dezaten. Hemen lana duzu eskura.” Berriro




galdetu behar izan nion ea lana zein zen, ez nuelako zertaz ari zen hitz egiten ulertzen, erabat itsua nengoen... Berak dena behar bezala azaldu zidan: zenbat kobratuko nuen, zein hoteletan egongo nintzen... dena. Altxatu aurretik, zuzen eta argi bota zidan “Norbaitek zeozer lazgarri egin edo esan bezain pronto niri esan, eta ni arduratuko naiz guztiaz.” Eta bertan geratu nintzen urte eta erdiz Tapachulan lanean.

Han ezagutu nuen nire gaur egungo mutil-laguna ere, hondurastar bat, eta ia 4 urte daramatzagu elkarrekin. Eskaintzen dieten bisa humanitarioa lortu zuen eta Querétaro eta Mexiko Hirira joan ginen bizitzera. Hemendik kanpo ez naiz sexu-lanetan aritu inoiz, hoteletako garbiketa lanetan edota beste zeozertan ibili izan naiz, baina ez sexuaren munduan. Soilik Tapachulan egin dut hori. Izeko bat hil egin zitzaidan eta ama gaixo erori zen orduan eta Tuxtlara bueltatu behar izan ginen.

Kale kantoia lan egiten duenarena da eta, beraz, poliziek ez digute ere tutik esaten. Jendeak kritikatzeko eta gutz hitz eginez pasatzen ditu egunak, begi txarrez begiratzen gaituzte hau baino ez dakigulako egiten uste dute, lan egiteko bi beso ez bagenituzke bezala... Bai, izan baditugu, baina soldata ona duen senarrik ez badu, nik zer egingo dezaket aurrera egin ahal izateko... Nire mutilak lan egiten du bai, baina ertamerikarra den heinean inork ez dio benetako lan duin bat ematen, oso gaizki ikusiak daudelako eta aurreiritzi ugari dituztelako haiekiko.

Parkea publikoa da, guztiona. Bertan inork ez du inolako aginterik eta ezin dute kobratu egoteagatik, nahi izanez gero etorri eta lan egin daiteke, eta kito. Marak kobratzen hasiko zirela zurrumurrua zabaldu zen behin. Iskanbila moduko bat sortu zen, orain bost urte gutxi gorabehera, baina ez zen ezer askorik pasa. Egun batean bai heldu zirela, eta nire alboan gizon handikote bat eseri zen, Mara-koa zela aitortuz. Esku bat gainetik pasatu zidan eta ordutik aurrera kobratzen hasiko zirela esan zidan, astero 100 peso-ko alokairua hain zuzen. Momentuan izutu nintzen, pertsona hauek kriminalak dira izan ere eta hil egiten zaituzte batere pentsatu gabe. Sexu-langile guztiak elkartu eta poliziarekin hitz egin genuen atoan. Zorionez alde egin zuten eta ez genituen berriro ere handik ikusi, ezta entzun ere. Ni ere bertatik joan egin nintzen gaur arte. Asko gustatuko litzaidake parkean gu guztien artean halako arazo gehiago ez izatea, lagunak eta bata bestearen zaindariak gara azken finean.



Susana, 40 urte.

Sexu langilea. 11 urte “Brigada Callejera” elkartean sustatzaile lana egiten.

Hona heltzean ez nintzen oso gazte jada, baina batere esperientziarik gabe nengoen, honako giroetan murgiltzeko denborarik ez nuen. Nire lehengusinarekin etorri nintzen hasiera batean, bizi baldintzak behartu ninduten nolabait pausua ematera... izan ere, batzuetan jendeak ez ditu norbanakoaren arazoak konpontzen.

Bertan lana bazegoela kontatu zigun behin neska batek, gerturatu gintezela gu ere, baina Guatemalako kamioi geltoki batean botata utzi gintuen. Migrazio postukoek ez harrapatzeko, zapatila eta arropa zuriekin ibili behar ginela esan zigun. Ekaitz bortitza egon zen egun horietan, zubiak ere bota egin zituen, eta hauek gainetik zeharkatu behar izan genituen, auto-stop eginez. Gertatu ahal zitzaigunaren beldur ginen. Seiak aldera heldu ginen Tecún Umán-eko muga-postura. Ez ginen ausartu ibaia zeharkatzera, ez genuelako inolako dokumenturik eta ez genuelako inor ezagutzen, soilik haraino eramán zigun neskato hura, han bertan abandonatu gintuena. Ez genuen berriro ere ikusi eta bakar-bakarrik egin behar izan genuen bidaia. Mugako hoteltxo batean egin genuen lo eta hurrengo egunean, goizeko bostak aldera eta asko galdetu ostean, Tapachulara heldu ginen azkenean. Bertatik garraioa lortu genuen Huixtlara heltzeko. Estrategia bat eratu genuen, gutariko bat harrapatu ezean, ezezagunak ginen plantak egiteko eta behintzat batek aurrera egiteko aukera izan zezan. Ez ginen solasaldian etorri, erabat mutu baizik.

Behin biak Huixtlan ginela, lan eske hasi ginen. Azkenean, lana ematen zigun negozio bat aurkitu genuen. Dena beteta zegoen eta gelaxka berean geunden biak, bertan aritu behar ginen lanean ere. Neskatxa ugari zeudela gogoratzen dut.

Une oso txarrak pasatu ditugu, honaino iritsi guztion antzera suposatzen dut. Hemen bizi garen gehienok gure familiak han ditugu eta dirua hara bidaltzea da gure erronka nagusia. Gure herrialdean sufritzen ari garen guztia kontuan hartuta, nire ustez erabaki ona izan da hona etorri izana. Mexikarrak oso onak dira, nahiz eta batzuetan esan mexikarrek ez gaituztela maite. "Urdangei ez zaizue ordainsaria irabaztea ezer kostatzen", diote askok lagunartean. Baina gauzak ez dira horrela, gure lana oso gogorra da. Lan hau emakume ausartentzat soilik egina dago.



“Brigada Callejera” elkarteari esker aurrera pausu ugari eman dira. Hasiera batean, udalerrietako osasun zerbitzuek asko mespretxatzen gintuzten, “emakume hauek ez dute zentimorik ere balio” esaten zuten orokorrean. Nahieran tratatzen gintuzten. Toki oso desatseginetara eramaten gintuzten, itoginez beteak eta hormak hezetasunez josita zeudenak. Behin eta berriz zigortzearekin mehatxatzen gintuzten, lan egiteko baimenik gabe utziz. Ez gintuzten han nahi ezta haien gertu ere. Denak gelaxka baten barruan biltzen gintuzten, sekulako beroa zelarik, eta han izan behar ginen gu arakatu arte. Gauzak horrela, Elvira haiekin kontaktuan jartzen hasi zen, hizketan, egiten ari zirena bidegabekeria hutsa zela esanez. Bera ez zegoenean, gauza benetan gogorrak egin izan zizkidaten niri han. Orain, Jainkoari esker, gauzak asko aldatu dira. Denbora pasa ahala, norberak ikasi egiten du eta dagozkion eskubideak aldarrikatzen eta defendatzen Hasten da.



Ana María, 29 urte.

5 urte “Brigada Callejera” elkartean sustatzaile lana egiten.

Ni zerbitzaria nintzen eta taberna batean lanean ezagutu ninduen elkarteko kideak. “Brigada Callejera” emakume elkartea da, heziketa eta laguntza eskaintzeaz arduratzen dena, baina baita lan edota erlazio sexualen kasuan orientazio lana ere sustatzen duena. Oso interesgarria iruditu zitzaidan eta boluntario gisa elkartu nintzen. Hainbat gauzetan lagun izan naute jada, etorkin egoera legeztatzeko eta paperak behar bezala eguneratuak izateko adibidez. Hiru urte behar izan ditut paperak eduki ahal izateko eta hurrengo pausua herritartasun osoa lortzea izango da.

Xiringak jartzeko eta azukre probak egiteko trebatu naute, Gib eta sifilis probak ere egiten hasi naiz, kondoiak banatzen ditugu baita. Lehen lerroan aritzen gara lanean, tabernetara jo eta frogak egiten ditugu lekuan bertan: zerbitzariei, sukaldariei, atezainei, jabea berari... denei. Orokorrean, nesken kasuan, guztiei egiten zaizkie eta hiru hilabetero negozioak bisitatzen ditugu, analisiak epez kanpo geratzear daudenean. Negozio hauen zerrenda dugu eta dena eguneratuta dugu lana behar bezala egiteko.

Behin, GIB proba baten emaitza positiboa ematea egokitu zitzaidan. Oso une latza izan zen hura. Holako diagnostiko bat ematean, eta gaixoaren aurpegia ikustean, habea erortzen zaie gainera. Gogorra naiz ni, edo hala hartzen dut nire burua, baina egun horretan erabat goibeldu nintzen. Zoritxarreko albiste hau ematean, beti pentsatzen dut nire barnerako “bere lekuan izango banintz...” Baretzen saiatzen naiz haiekin hitz eginez, apaltasun osoz, tratamendua behar bezala jarraitu ezean ez direla hilko azaltzen diet. Momentu horretan shock egoeran daude eta irribarre bat lortzea, txikia bada ere, ezinbestekoa suertatzen da.

Oso mingarriak dira lankideek bizi dituzten egoera asko, jipoitu eta ondoren hoteletan botata uzten dituztelako, esaterako. Behin, neska bat laguntza eske ari zen, baina ez zitzaion inor hurbiltzen, ezta polizia bera ere ez. Orduan, etorkinen fiskaltzara jo genuen, neska guatemalarra zelako, baina han ere ez zuten artatu nahi, edanda zegoela egotzita. Beste batean, lagun bat hil zuten hotel batean. Bideo-kamerak eta frogak guztiak edukita eta hala ere neska hil zuen pertsona ezin harrapatu... ez da legezkoa. Agintariak iritsi zirenean, laguntza eskaini beharrean, bideoak ezabatzen hasi ziren. Jakin badakite norekin sartu zen neska eta nork hil zuen, baina agintariak ez dute ezer egin gaur eguneraino. Hilda dago, lurperatu dute, eta hor bertan geratu da betirako bere kasua.



Agintarien ustetan, arrisku bila doaz neskak, baina ez du inolako funtsik horrek. Holako taberna batean lanean ari den emakume batek ez du inoiz nahi duelako egingo. Zenbait lagunek, adibidez, bi edo hiru seme-alaba dituzte, edota ama ezkongabeak dira. Lan merkatuan, 500 pesoko soldatak ordainduta, guztiz ezinezkoa da haurrak aurrera eramatea, alokairua ordaintzea, osasun zerbitzua ordaintzea... Nola biziraun dezakegu horrela? Kantinetan, tabernetan edo haien kabuz diharduten emakumeak ez dute ezer ordaindu behar lan egiteko behintzat. Seme-alabak eta familia aurrera atera ahal izateko egiten dute lan hori, ez atsegina suertatzen zaielako edo gozamen hutsagatik. Alokairuak ordaindu behar dituzte, haurrak elikatu, ama gaixo dute agian... horrelako arrazoiak dituzte gehienek bertan aritzeko.

Agintariek ez dute hortik haratago ikusten, bizizale hutsak garela eta bertan lan egitea gustatzen zaigula diote. Nolatan gustatuko ote zaigu ezezagun batek hankartean ibiltzea edota botilakada bat emateko arriskua izatea, adibidez? Inor ez doa bertara norberak nahi duelako. Baina hori ez dute ikusten, edo ez dute ikusi nahi, ez dira gai askok ditugun premien beharra antzemateko.